## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 764/2018 Erabakia, abenduaren 21ekoa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren lanpostu zerrendaren aldaketa**

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatuta), ondoko hau dio bere zioen adierazpenean: “Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren muinik garrantzitzkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibideratzeko eragile bilakatuz. (…) lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute…”. Hori guztia bat dator urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, langile publikoaren oinarrizko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, 74. artikuluan xedatutakoarekin, alegia: “Herri Administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, eratxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak”.

Horiek horrela, 6/1989 Legeak 13. artikuluan ondoko hau xedatzen du: “Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileen beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu zerrendak”. Lege horretako 14. artikuluak, berriz, beste hau arautzen du: “Lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko lanari finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz”.

Halaber, 15. artikuluan xedatzen du lanpostu zerrendek nahitaez adierazi behar dituztela datu hauek: lanpostu bakoitzaren izena, atxikita dagoeneko saila edo zuzendaritza, dedikazio erregimena, lanpostuan jarduteko eskatzen diren baldintzak –haien artean hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data– eta atxikita dagoeneko talde, kidego edo eskala, edo lan kategoria.

Era berean, lege horrek 16. artikuluan xedatzen du foru aldundietako lanpostu zerrendak eta haiei egindako aldaketak dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko direla.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 347/2018 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrenda aldatu zen.

Lanpostuei esleitutako antolamendu egituraren, eskumenen eta eginkizunen bilakaerak eskatzen du lanpostu zerrenda aldatzea eta egokitzea.

Zehazki, Desgaitasuna duten pertsonen Arloan, pedagogo talde-arduradunaren lanpostu hutsa kentzen da (kodea: 11.002) eta, haren tokian, pedagogo lanpostuaren dotazio bat sortzen da (kodea: 91.005). Era berean, Adinekoen Programetako erdi-mailako teknikariaren lanpostuan (kodea: 73.001), gaitzen duen titulutzat ezarri da Gizarte Laneko unibertsitate diploma (kodea: 502).

Bestalde, hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun datei dagokienez, adierazi behar da administrazio honetarako VI. plangintzaldiari (2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra) dagokion derrigortasun daten indizea lanpostuen ehuneko 38,38n ezarrita dagoela. Hori betetzeko, beste 24 derrigortasun data esleitu dira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aurreko guztia aintzat harturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-kudeatzailetzak lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena prestatu du. Sindikatuekin negoziatu beharrekoa negoziatu ondoren, agiri hori erakunde autonomoaren administrazio kontseiluari aurkeztu zaio eta horrek erabaki du Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, horrek lanpostu zerrendaren aldaketa onar dezan; betiere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 8.m) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, bere betearazpen eginkizunaren barruan, foru aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onestea, halaxe xedatzen baitu 52/1992 Foru Arauak (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzkoa) 8.12 artikuluan, betiere 15/1987 Foru Arauaren 9.d) artikuluan aurreikusitakoarekin lotuta (15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, jarduera ekonomikoen eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuen kudeaketari buruzkoa).

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrendaren aldaketa. Hona hemen:

- ALDATZEA Adinekoen Programetako erdi-mailako teknikariaren lanposturako (kodea: 73.001) eskatzen den titulua, zeina, aurrerantzean, Gizarte Laneko unibertsitate diploma (kodea: 502) izango baita, I. eranskinean jasotakoaren arabera.

- KENTZEA II. eranskinean jasotzen den lanpostua.

- SORTZEA III. eranskinean jasotzen den lanpostua.

- 24 lanposturi ESLEITZEA 2018ko uztailaren 1eko derrigortasun data, IV. eranskinean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA. Erabaki honek Foru Gobernu Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta ALHAOn geroago argitaratu.

HIRUGARRENA. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakunde beraren aurrean, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Gasteiz, 2018ko abenduaren 21a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua*
*M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## I. ERANSKINA

| LANPOSTUA | EGUN ATXIKITAKO UNITATEA | EGUNGO TITULAZIOA | TITULAZIO BERRIA |
|---|---|---|---|
| 73.001<br><br>ADINEKOEN PROGRAMETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA | 80.2.02<br><br>ADINEKOEN ARLOA | --------- | 502 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**LANPOSTUEN ZERRENDA**
**II ERANSKINA**
**LANPOSTUA KENTZEA**

PAG.- 1

| KODEA | IZENA | L M | DED. ERR. | BETE. MODUA | ADMINIS. | LASPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK: SAIKAP. T E A K | IKASK. TITUL. | HIZKUN. ESKAKI. | BERAR. EZAG. | LANSARIAK: D.O. MAIL | BERARIA. OSAGARR. | LANTOKIAREN HERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11.002 | PEDAGOGO TALDE-ARDURADUNA | EB | | L | GOFE | A 2 1 1 | 604 | 3 06/2014 | | 26 | 27.208,58 | VITORIA-GASTEIZ |

**ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA**

**ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK**

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 1

*ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK Postuen osoa 1*

*ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA Postuen osoa 1*

**UNITATEKO LANPOSTUAK GUZTIRA : 1**



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**Lanpostu-motari dagozkion gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| EB | EZ BAKUNA |
| B | BAKUNA |

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| L | LEHIAKETA |
| I | IZENDAPEN ASKEA |

**Eskalei dagozkien gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| 2 | ADMINISTRAZIO BEREZIA |
| 22 | ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK |
| 221 | ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK |
| 222 | ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA |
| 213 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA |
| 212 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA |
| 211 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA |
| 1 | ADMINISTRAZIO OROKORRA |
| 12 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK |
| 13 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK |
| 15 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-KDEAKETA |
| 14 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK |
| 11 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK |
| 3 | GAIKUNTZA NAZIONALA |
| 32 | GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILETZA-DIRUZAINTZA |

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion errekirimnendu espezifikoen azalpena**

| | |
|---|---|
| 001 | ENPRESAKO ERIZAINTZAKO DIPLOMA |
| 002 | GIDABAIMENA, D MOTAKOA |
| 003 | GIDABAIMENA, B MOTAKOA |
| 004 | ARRISKUEN PREBENTZIORAKO IKASTARO AURRERATUA |
| 005 | LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA |
| 010 | ERIZAIN LANETAN URTEBETEKO ESPERIENTZIA |
| 011 | KUDEAKETAN URTE 1 ESPERIENTZIA EDO 2 URTE ERIZAINT |
| 012 | KUDEAKETA LANPOSTUETAN BI URTEKO ESPERIENTZIA |
| 013 | SEXU DELITUGEEN ERREG. ZENTRALAREN EZEZKO ZIURTAG. |

**Ikasketa Tituluen azalpena:**

| | |
|---|---|
| 100 | ESKOLA ZIURTAGIRIA |
| 200 | ESKOLA GRADUATUA |
| 300 | LEHEN GRADUKO LANBIDE HEZIKETA |
| 301 | LH I ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA |
| 302 | LH I OSASUN ARLOA |
| 303 | LH I OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA,SUKALDEKOESPEZ |
| 304 | LH I ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA |
| 305 | LH I METAL ARLOA |
| 306 | GIZA-OSASUN ARRETAKO TEKNIKARIA |
| 400 | BBB EDO LH II |
| 401 | LH II ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA,INFORMA |
| 402 | LH II NEKAZARITZA ARLOA |
| 403 | LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA ARLOA |
| 404 | LH II OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA,SUKALDEKO ESPE |
| 405 | LH II METAL ARLOA |
| 406 | LH II GIZARTE EGOKITZAPENEKO EDO EZINDU PSIKIKOEN |
| 500 | UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 501 | ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 502 | GIZARTE LANEKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 503 | INGENIARITZA TEKNIKOA,INDUSTRIA ADARRA |
| 504 | GIZARTE GRADUATUA |
| 505 | FISIOTERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.alava.net/ifbs/

| | |
|---|---|
| 506 | LAN-TERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 507 | OHO-KO IRAKASLEA |
| 507.001 | OHO-KO IRAKASLEA,SENDABIDEZKO PEDAGOGIA |
| 508 | EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE DI |
| 509 | INGENIARITZA TEKNIKOA,NEKAZARITZA ADARRA |
| 510 | BIBLIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA |
| 511 | GIZARTE HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 512 | INFORMATIKAKO INGENIARI TEKNIKOA |
| 513 | HEZK-GIZ. ZIENTZ.DIPL-LIZ GIZ.HEZ.ELKARG.GAIKUNTZA |
| 600 | UNIBERTSITATE LIZENTZIA |
| 601 | SOZIOLOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 602 | INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA |
| 603 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA |
| 603.001 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,GERIATRIAKO ESPEZIALITATE |
| 603.002 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,BIRGAITZEKO ESPEZIALITATE |
| 603.003 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIA |
| 603.004 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,PSIKIATRIAKO ESPEZIALITAT |
| 603.005 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,BARNE MEDIKUNTZAKOESPEZI |
| 603.006 | MEDIKUNTZA LIZENZIADUNA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ESP |
| 604 | PEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 605 | PSIKOLOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 606 | EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA |
| 607 | ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA |
| 608 | GOI-MAILAKO INGENIARITZA INDUSTRIALA |
| 609 | PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**LANPOSTUEN ZERRENDA**
**III ERANSKINA**
**LANPOSTUA SORTZEA**

PAG.- 1

| | | | | | | LASPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK | | | | LANSARIAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KODEA | IZENA | L M | DED. ERR. | BETE. MODUA | ADMINIS. | SAIKAP. T E A K | IKASK. TITUL. | HIZKUN. ESKAKI. | BERAR. EZAG. | D.O. MAIL | BERARIA. OSAGARR. | LANTOKIAREN HERRIA |
| **ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA** | | | | | | | | | | | | |
| **ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK** | | | | | | | | | | | | |
| 91.005 | PEDAGOGOA | EB | | L | GOFE | A 2 1 1 | 604 | 3 06/2014 | | 25 | 27.469,26 | VITORIA-GASTEIZ |

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 1

*ARLOA : 80.2.03 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK Postuen osoa 1*

*ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA Postuen osoa 1*

**UNITATEKO LANPOSTUAK GUZTIRA : 1**

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**Lanpostu-motari dagozkion gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| EB | EZ BAKUNA |
| B | BAKUNA |

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| L | LEHIAKETA |
| I | IZENDAPEN ASKEA |

**Eskalei dagozkien gakoen azalpena:**

| | |
|---|---|
| 2 | ADMINISTRAZIO BEREZIA |
| 22 | ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK |
| 221 | ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK |
| 222 | ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA |
| 213 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA |
| 212 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA |
| 211 | ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA |
| 1 | ADMINISTRAZIO OROKORRA |
| 12 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK |
| 13 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK |
| 15 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-KDEAKETA |
| 14 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK |
| 11 | ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK |
| 3 | GAIKUNTZA NAZIONALA |
| 32 | GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILETZA-DIRUZAINTZA |

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion errekirimnendu espezifikoen azalpena**

| | |
|---|---|
| 001 | ENPRESAKO ERIZAINTZAKO DIPLOMA |
| 002 | GIDABAIMENA, D MOTAKOA |
| 003 | GIDABAIMENA, B MOTAKOA |
| 004 | ARRISKUEN PREBENTZIORAKO IKASTARO AURRERATUA |
| 005 | LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA |
| 010 | ERIZAIN LANETAN URTEBETEKO ESPERIENTZIA |
| 011 | KUDEAKETAN URTE 1 ESPERIENTZIA EDO 2 URTE ERIZAINT |
| 012 | KUDEAKETA LANPOSTUETAN BI URTEKO ESPERIENTZIA |
| 013 | SEXU DELITUGEEN ERREG. ZENTRALAREN EZEZKO ZIURTAG. |

**Ikasketa Tituluen azalpena:**

| | |
|---|---|
| 100 | ESKOLA ZIURTAGIRIA |
| 200 | ESKOLA GRADUATUA |
| 300 | LEHEN GRADUKO LANBIDE HEZIKETA |
| 301 | LH I ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA |
| 302 | LH I OSASUN ARLOA |
| 303 | LH I OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA,SUKALDEKOESPEZ |
| 304 | LH I ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA |
| 305 | LH I METAL ARLOA |
| 306 | GIZA-OSASUN ARRETAKO TEKNIKARIA |
| 400 | BBB EDO LH II |
| 401 | LH II ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA,INFORMA |
| 402 | LH II NEKAZARITZA ARLOA |
| 403 | LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA ARLOA |
| 404 | LH II OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA,SUKALDEKO ESPE |
| 405 | LH II METAL ARLOA |
| 406 | LH II GIZARTE EGOKITZAPENEKO EDO EZINDU PSIKIKOEN |
| 500 | UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 501 | ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 502 | GIZARTE LANEKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 503 | INGENIARITZA TEKNIKOA,INDUSTRIA ADARRA |
| 504 | GIZARTE GRADUATUA |
| 505 | FISIOTERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.alava.net/ifbs/

| | |
|---|---|
| 506 | LAN-TERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 507 | OHO-KO IRAKASLEA |
| 507.001 | OHO-KO IRAKASLEA,SENDABIDEZKO PEDAGOGIA |
| 508 | EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE DI |
| 509 | INGENIARITZA TEKNIKOA,NEKAZARITZA ADARRA |
| 510 | BIBLIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA |
| 511 | GIZARTE HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA |
| 512 | INFORMATIKAKO INGENIARI TEKNIKOA |
| 513 | HEZK-GIZ. ZIENTZ.DIPL-LIZ GIZ.HEZ.ELKARG.GAIKUNTZA |
| 600 | UNIBERTSITATE LIZENTZIA |
| 601 | SOZIOLOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 602 | INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA |
| 603 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA |
| 603.001 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,GERIATRIAKO ESPEZIALITATE |
| 603.002 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,BIRGAITZEKO ESPEZIALITATE |
| 603.003 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIA |
| 603.004 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,PSIKIATRIAKO ESPEZIALITAT |
| 603.005 | MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA,BARNE MEDIKUNTZAKOESPEZI |
| 603.006 | MEDIKUNTZA LIZENZIADUNA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ESP |
| 604 | PEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 605 | PSIKOLOGIAN LIZENTZIADUNA |
| 606 | EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA |
| 607 | ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA |
| 608 | GOI-MAILAKO INGENIARITZA INDUSTRIALA |
| 609 | PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## IV. ERANSKINA

### HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN ESLEIPENAK. 2018KO UZTAILAREN 1A

| LANPOSTUA | EGITURA | HIZKUNTZA ESKAKIZUNA |
|---|---|---|
| 54.030 Administraria | 80.2.01.1.3 Erabiltzaileen kudeaketa | 2 |
| 55.455 Erizain laguntzailea | 80.2.02.5 Aguraingo Egoitza | 2 |
| 55.225 Erizain laguntzailea | 80.2.02.7 Amurrioko egoitza | 2 |
| 56.001 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.01 Puerto Rico Lanerako Zentroa | 2 |
| 56.002 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.01 Puerto Rico Lanerako Zentroa | 2 |
| 56.015 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.03 Lantze lanerako zentroa | 2 |
| 56.026 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.07 Adurza lanerako zentroa | 2 |
| 56.032 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.08 Ariznabarrako lanerako zentroa | 2 |
| 56.061 Lanerako zentroko monitorea | 80.2.03.4.10 Lakua Arriaga lanerako zentroa | 2 |
| 95.001 APZ monitorea | 80.2.03.5 Autonomia Pertsonaleko Zentroa | 2 |
| 95.002 APZ monitorea | 80.2.03.5 Autonomia Pertsonaleko Zentroa | 2 |
| 29.039 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 29.040 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 29.041 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 29.042 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 29.043 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 29.044 Gizarte langilea | 80.2.04.1 Informazio bulegoa | 3 |
| 13.021 Psikologoa | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

| | | |
|---|---|---|
| 13.022 Psikologoa | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |
| 13.023 Psikologoa | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |
| 13.024 Psikologoa | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |
| 29.026 Gizarte langilea | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |
| 29.047 Gizarte langilea | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |
| 29.048 Gizarte langilea | 80.2.05.1 Adingabe eta familiaren talde teknikoa | 3 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.01.10 00:00:22 Z